

MUko eskalada ikastaroan oso gustora ari dira parte hartzaileak

2012/11/26

Martxan da MUko Kirol Zerbitzuak antolatutako Eskaladako hastapen ikastaroa, eta parte hartzaile kopurua handiegia izan ez arren, oso gustora ari dira parte hartzaileak. MUko ikasleak eta langile bat dira ikastaroan parte hartzen ari direnak, eta sentsazio benetan aberasgarriak izaten ari direla komentatu digute.

2 monitorekin dabilta ikastaroan eta saio benetan entrenigarriak antolatzen dizkiete, bakoitzaren mailara egokituta. Gainera, Aretxabaletako IBARRA kiroldegiko boulder-a, inguruan aurki daitekeen handienetarikoa da, eta honen ondorioz, eskalada ikastaroa benetan arrakastatsua izaten ari da.

Animo parte hartzaileei!!

